

Arantza Garaialde Maiztegi
Donostia, Gipuzkoa (1951)

arantza garaialde

Aurkibidea

Biografia

arantza
garaialde

Aita ataundarra zuen, medikua, eta ama eibartarra, maistra (gerra garaian zigortua): Elixabete Maiztegi. Gipuzkoa plazan bizi ziren. Lau senidetan gazteena (hiru anaietako bat gazterik hil zen). Familia oso euskaltzalea zen. Arantzak Elvira Zipitriarekin ikasi zuen umetan, isilpeko ikastolan. Eta Maria Dolores Agirrerekin antzerkia egin zuen urte askoan. Santo Tomas lizeoan ikasi zuen, eta karrera ere egin zuen gero. Irakaslea da. Zehaztasun handiz kontatu zigun Donostiako giroa nolakoa zen, hainbat anekdota eta bizipen.

Zintak

DON-168

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2015-06-10
- **Iraupena:** 68 min

- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Lizeaga, Irati

DON-169

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2015-06-10
- **Iraupena:** 74 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Lizeaga, Irati

DON-170

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2015-06-10
- **Iraupena:** 58 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Lizeaga, Irati

DON-171

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2015-06-10
- **Iraupena:** 40 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Lizeaga, Irati

Pasarteak

1. Familiako lehen neska

- **Erref:** DON-168/002
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:00:23. **Bukatu:** 00:01:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Klinika batean jaio zen, eta familiako lehen neska izan zen. Arantzazuko Amabirginean fede handia zuen amak, eta horregatik jarri zioten Aranzazu izena.

2. Ama maistra, aita medikua

- **Erref:** DON-168/004
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:02:08. **Bukatu:** 00:03:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikua eta sasimedikuak

Laburpena:

Aita ataundarra zuen, ama, berriz, eibartarra. Amak majisteritza ikasi zuen Donostian, eta bertan gelditu ziren bizitzen, Grosen. Aitak medikuntza ikasi zuen Zaragozan.

3. Ama euskaraz irakasteagatik salatu

- **Erref:** DON-168/005
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:03:46. **Bukatu:** 00:05:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:

<p>Ama irakaslea zen. Ikasleekin erakusketa bat egin zuen, eta gizon batek salatu egin zuen, abertzaleegia zelakoan. Ondorioz, zigortu egin zuten Areso herrian. Eszedentzia eskatuta, Donostiara itzuli zen bikotea.</p>

Transkripzioa

-Oporretan uztaillan Donostira etorrita, ta orduan erakusketa bat utzi zuten eskolan ba umiekin ta egindakoa ta herri guztia pasa zan, berak zionez, bat ezik, Patxikusaltsa edo deitzen ziotena, oso tratantea zana. Eta berak ba salatu zitun, esanaz e, prozeditismoak iten zula umeeekin, gaztelaniaz eman behar zanean noski. Baiña berak antzerkiak eta umeeekin saiatzen zan kantuak eta antzerkiak, eta ahal zun guztia euskera sartzen, ta orduan santzionatu zuten Areson, gero santzioa egin zioten, bueno bialdu zuten Abaurrea Alta, Goi Abaurreara, zegoela elurretan neguan, noski. Eta aitak ezin zun trasladua eskatu haruntza, han bazegoelako medikua. Orduan derrigorrez bat Areson egon behar eta orduan eszedentzia eskatu zun amak, "asuntos propios" edo horrela. Gero bigarrena eta azkenengo santzioa dauka milla beatzirehun eta berrogeita batekoa. Esanaz Nafarro osoan, berez Iruña esaten du, ezin zula klaserik eman. Eta orduan ba beti esaten zun: "eskertu behar diot Francori, nere etxeko sukaldean utzi nindula". Nere ama oso bokazionala zan, benetan, eta gaiñera balore asko eman diona beti, ba hori, irakaskuntza kontu guzti hoiei. Ta hori da pixka bat historia, ta beno Donostira etorri ziran, ta orduan, ba bueno, nik ezagutu dudan etxean, alokatu moduan hortxe sartu ziran ta konsulta ta han zeukan aitak, eta gure etxebizitza horrela zan, eta bueno, ama hil arte etxe hortan bizi izandu zan.

4. 67 urterekin lanean hasi zen ama

- **Erref:** DON-168/006
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:05:26. **Bukatu:** 00:07:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Erretiratu baino lau bat urte lehenago Arantzaren amak Jaenera joan behar izan zuen irakasle gisa lan egitera.

5. Jaendik Donostiara

- **Erref:** DON-168/008
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:08:03. **Bukatu:** 00:08:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Errepublikara garaian oposaketa bidez lortu zuen Arantzaren amak irakaskuntzan lan egitea, baina Frankoren agintaldian ez zuen maistra gisa lan egin. 67 urte zituela Jaengo herri txiki batean lanean hasi eta Donostiako Zuhazti Ikastolan lana topatu zuen.

6. Aitak medikuntza derrigorrez ikasi

- **Erref:** DON-168/009
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 00:08:53. **Bukatu:** 00:12:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikak eta sasimedikak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Aitari mekanika asko gustatzen zitzaion. Etxeko seme gazteena zen, eta medikuntza ikasi behar izan zuen, derrigorrez. Jendearekin lan egitea, hala ere, asko gustatzen zitzaion. Haren nebak, apaiza zenak, mediku izateko instrumentala oparitu zion ikasketak amaitutakoan, baldintza bakarrarekin: ez zitzaila sekula emakumeekin erabili. Baldintza betetzeko, otorrinolaringologian espezializatu zen.

7. Aita, presarik gabeko medikua

- **Erref:** DON-168/010
- **Iraupena:** 0:03:38. **Hasi:** 00:12:27. **Bukatu:** 00:16:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikak eta sasimedikak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aitak konsulta etxean bertan zuen hasiera batean. Gero osasun publikoan sartu eta Tolosan eta Donostian aritu zen lanean. Trintxerpeko arrantzaleen mediku gisa ere egin zuen lan askotan.

8. Aitak, gaztelaniaz ez zekiten gaixoak

- **Erref:** DON-168/011
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:16:05. **Bukatu:** 00:18:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Oso maitatua zen Arantzaren aita, euskaraz zekien mediku bakarrenetakoa baitzen bera. Horregatik, gaztelaniaz ez zekien jende asko joaten zen.

9. Aitak kontatutako istorioak

- **Erref:** DON-168/013
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:19:45. **Bukatu:** 00:22:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Ikasketak amaitutakoan, auzoko medikua oporretara joan eta ordezeko moduan gelditu zen Arantzaren aita. Tarte horretan hiru gaixo larrienak hil egin ziren. Beste batean, adineko emakume bat aurdun zegoelakoan joan zen bisitan, baina haizea besterik ez zuen barruan.

10. Elvira Zipitria eta Faustina Carrilen ikasle

- **Erref:** DON-168/015
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:22:28. **Bukatu:** 00:25:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Ama euskaltzalea zen oso, eta isilpeko ikastoletan ikasi zuten anai-arreba guztiek, Elvira Zipitriaren ikasle gisa. Arantzak Faustina Carrilekin ikasi zuen lehenago.

11. Andereño Felitxurekin frantsesa ikasi

- **Erref:** DON-168/016
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:25:40. **Bukatu:** 00:28:00

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Elivira Zipitriarekin hasi zirenean, Iparraldetik etorritako Felitxurekin ere ikasi zuten. Honek frantsesa irakasten zien, beti ere, Elviraren metodologia jarraituz, kantu eta antzerki bidez.

12. Santo Tomas Lizeoko ikasle

- **Erref:** DON-168/017
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:28:00. **Bukatu:** 00:30:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Elvira Zipitriaren gustoko ez bazen ere, amak Arantza Santo Tomas Lizeora eramatea erabaki zuen behin Elvirarekin ikasketak bukatutakoan. Honek bi urte inguruko haserrea ekarri zuen.

13. Santo Tomas Lizeoa: oinarrizko euskara

- **Erref:** DON-168/019
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:31:03. **Bukatu:** 00:34:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:

Euskaraz ahal zuten guztia ematen bazuten ere, prestakuntza euskaraz eta azterketa gaztelaniaz izaten zen beti.

14. Santo Tomas Lizeoaren oroitzapena

- **Erref:** DON-168/021
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:34:22. **Bukatu:** 00:36:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Neska mutilak elkarrekin zeuden gela berean. Orokorrean donostiarrak eta

hernaniarrak ziren ikasleak. Amara Berrin zegoen orduan ikastola, ibaiari begira.

15. Gimnasiako azterketa gogorra

- **Erref:** DON-168/022
- **Iraupena:** 0:04:16. **Hasi:** 00:36:09. **Bukatu:** 00:40:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Kirola eskolan bertan egiten zuten. "Atletico de San Sebastian" taldearekin akordioa egin eta bertan hasi ziren kirola egiten. Urte bukaeran azterketa gogor bat egin behar izaten zuten. Irakaslea Sección Femeninakoak zen, eta oso gogorra zela oroitzen du Arantzak.

16. "La cuatro pelos"

- **Erref:** DON-168/023
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:40:25. **Bukatu:** 00:41:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Gimnasiako irakasleari "La cuatro pelos" deitzen zioten, oso zorrotza omen zen hau, Sección Femeninako kidea.

17. Xanti baserrira eskapatu zirenekoa

- **Erref:** DON-168/024
- **Iraupena:** 0:05:54. **Hasi:** 00:41:50. **Bukatu:** 00:47:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Itziar Mujika zen Santo Tomas Lizeoko zuzendaria. Jolasten egon ohi ziren beti txirrinak jo baino lehenago, eta beti berandu iristen ziren eskolara. Behin zigortu egin zituzten eskolara sartu gabe, berandu iristeagatik. Xanti baserrira joan ziren eta bertako mahai batean eseri ziren eskolatik ateratzeko ordua izan arte.

18. Itziar Mujika, Santo Tomas Lizeoko zuzendaria

- **Erref:** DON-168/027
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:49:30. **Bukatu:** 00:52:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Santo Tomas Lizeoko zuzendaria, Itziar Mujika, kartzelan izan zen, Mitxelenarekin batera, euskal gatazka zela eta.

19. Elvira Zipitriaren metodologia

- **Erref:** DON-168/029
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:52:57. **Bukatu:** 00:55:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Garaiko eskolekin alderatuta, oso metodologia ezberdina zuten, edukiaren eta edukia irakasteko moduaren aldetik. Lurrean eserita egoten ziren ikastolan.

20. Ikastolako materiala

- **Erref:** DON-168/030
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:55:30. **Bukatu:** 00:58:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Lurrean egiten zuten dena, eta bertan erabiltzen zuten materiala aipatzen du Arantzak, haien artean, arkatz gorri urdinak, zotzak, kanikak, arkatz beltza...

21. Ikastolan, ahozko eta idatzizko adierazpena

- **Erref:** DON-168/031
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:58:26. **Bukatu:** 01:01:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Garrantzi handia ematen zitzaion ahozko eta idatzizko komunikazio eta adierazpenari Elvira Zipitriaren metodologian.

22. Ikastolan piper egin zuenekoa

- **Erref:** DON-168/033
- **Iraupena:** 0:05:36. **Hasi:** 01:02:00. **Bukatu:** 01:07:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Hiru Errege Mahaiari buruz idazlan bat egin behar eta Arantzak ez zuen egin. Egin ez zuenez, ez zen eskolara agertu. Elvirari gaixorik zegoela esan zioten lagunek, baina batek salatu egin zuen. Abisua eman zien Arantzaren gurasoei eta errieta ederra egin zioten.

23. Donostiako gaztelura ikastera; guardetxea

- **Erref:** DON-169/002
- **Iraupena:** 0:04:18. **Hasi:** 00:00:25. **Bukatu:** 00:04:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

<p>Elbira Zipitriak askotan ikastolatik atera eta umeak gaztelura eramaten zituen, bertan naturarekin loturikoak ikas zitzaten, beti ere jolas bidez. Sarrerako atea fisikako eduki oinarritzakoak lantzeko ere erabiltzen zuen. Guardetxean "Etxe poxpola" abestia abesten zuten, antzerkia eginez.</p>

24. Urgullen itsasoari buruzkoak ikasten

- **Erref:** DON-169/003
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:04:43. **Bukatu:** 00:06:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

<p>"Isatsoa laino dago" abestuz irakasten zien Elvira Zipitriak geografia eta itsasoari buruzko edukia.</p>

25. San Juan sua Gazteluan ospatzen

- **Erref:** DON-169/004
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:06:29. **Bukatu:** 00:09:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:

<p>Gazteluko toki batean, baluarteko begiratokian (ikus mapan), ospatzen zuten San Juan sua Faustina Karril eta Elbira Zipitriarekin. "Espartinak urratuta" abesten eta dantzatzen zuten suaren inguruan, argazkilari eta guzti.</p>

26. San Sebastian eguna Faustinarekin

- **Erref:** DON-169/005
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:09:35. **Bukatu:** 00:10:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Aurrezkua dantzatzen zuten San Sebastian egunean, Donostiako bandera hartuta.

27. San Inazio martxaren bertsioa

- **Erref:** DON-169/006
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:10:34. **Bukatu:** 00:13:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak

Laburpena:

Elizan abesten zen San Inazio martxa, baina Elvira Zipitriak letra moldatu eta beste modu batera irakatsi zien umeei. Arantzak bere bertsioa abestean begiratu egiten zioten elizan. San Sebastian eguneko kantuarekin berdin.

28. Azterketak ondoren feriarra

- **Erref:** DON-169/008
- **Iraupena:** 0:04:53. **Hasi:** 00:13:17. **Bukatu:** 00:18:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Hamalau bat urterekin lizeoko azterketak egin ondoren feriatara joaten ziren denak. Kokoa jaten zutela oroitzen du Arantzak, baita algodoia ere. Oinez joaten ziren Peñafloredatik ume eta amak.

29. Igeldoko parkera bisitak

- **Erref:** DON-169/009
- **Iraupena:** 0:03:37. **Hasi:** 00:18:10. **Bukatu:** 00:21:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Funikularrean igotzen ziren gaztetan Igeldora, hasiera batean gurasoekin, eta gero gabe. Asto gainean ibiltzen ziren, kulunkan, eta tximuak eta Ursula hartza ikusten zituzten bertan.

30. Patinekin Igeldon

- **Erref:** DON-169/010
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:21:47. **Bukatu:** 00:25:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Igeldoko parkean egindakoa azaltzen du Arantzak pasarte honetan. Etxetik eramandako patinekin ibiltzen ziren.

31. Txantxillo Alderdi Ederren

- **Erref:** DON-169/011
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:25:04. **Bukatu:** 00:26:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

<p>Alderdi Ederren askotan egon ohi ziren Arantazu eta lagunak jolasean. Bertan Txantxillo egon ohi zela oroitzen du Arantzak, poltsa mordoarekin eta xilofonoa jotzen.</p>

32. Kontxako Guardak

- **Erref:** DON-169/012
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:26:57. **Bukatu:** 00:27:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

Okendon eta Kontxan guardak egon ohi ziren, uniforme berdez jantzita eta makila eskuan.

33. Tranpa egin nahian, erori

- **Erref:** DON-169/013
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:27:46. **Bukatu:** 00:30:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Tabak eta kromoak nesken jokuak zirela oroitzen du Arantzak. Behin Alderdi Ederren jolasten zebilela erori eta zauria egin zuen.

34. Kontxara umetan, Ondarretara gaztetan

- **Erref:** DON-169/014
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:30:56. **Bukatu:** 00:33:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Ohikoa zen Arantza eta lagunentzat hondartzara jaotea. Hasiera batean Kontxara joaten ziren, Ondarretara gero. Toldoak egon ohi ziren alokagai.

35. Hondartzako jolasak

- **Erref:** DON-169/015
- **Iraupena:** 0:04:27. **Hasi:** 00:33:55. **Bukatu:** 00:38:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Amona itzaletan zen bitartean, inguruko umeak jolasean aritzen ziren hondartzan, besteak beste, marea igotakoan harresia noiz puskatuko zen begira, hondarrarekin formak eginez, txapekin...

36. Garai bateko txirrindulariak

- **Erref:** DON-169/016
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:38:22. **Bukatu:** 00:39:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

Laburpena:

Etxean txirrindularitzarako afizio handia zuten, eta txirrindulariak freskagarrietako txapetan agertu ohi ziren.

37. Scouten kide

- **Erref:** DON-169/017
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:39:42. **Bukatu:** 00:42:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Anaia eta Arantza Scout izan ziren. Amak sartu zituen bertan, baina anaiak bi urtera utzi egin zuen. Arantzak, berriz, denbora gehiagoan jarraitu zuen, hamahiru urte bete arte. Udan kanpamentua egiten zuten, denda eta guzti.</p>

38. Oiartzungo Scout kanpaldia

- **Erref:** DON-169/018
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 00:42:02. **Bukatu:** 00:45:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Baserri baten inguruan egin zuten Scoutetako lehen kanpaldia, Oiartzungo baserri baten lurretan. Autobusez joaten ziren bertara, motxila bizkarrean, lo-zaku eta guzti. Scout zaharragoek laguntzen zieten kanpamendua egiten.

39. Zapia, falangetik bereizteko ezaugarria

- **Erref:** DON-169/019
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:45:31. **Bukatu:** 00:46:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Falangeak ere Scout moduko batzuk asmatu zituen "Frente de Juventudes" izenekoa. Zاپirik ez zuten eramaten, ordea, eta horregatik eramaten zuten beraiek zapia, falangistak ez zirela argi uzteko. Kanpamenduan banderak igo behar izaten ziren. Horren inguruko gorabeherak.

40. Gauero kanpamendu sua

- **Erref:** DON-169/020
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:46:45. **Bukatu:** 00:48:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

Laburpena:

Scoutetan astebete pasatzen zuten kanpamenduan. Udaleku moduko batzuk ziren umeentzat. Gauero-gauero sua egiten zuten eta inguruan abesten eta antzerkia egiten aritzen ziren.

41. Piragua alokatzen zuten

- **Erref:** DON-169/022
- **Iraupena:** 0:03:49. **Hasi:** 00:48:38. **Bukatu:** 00:52:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kirola » Uretako kirolak

Laburpena:

Pirautxoa alokatzea luxu bat zen garai batean. Makinaz puztutakoak izan ohi ziren, eta orduko alokatzen ziren.

42. Donibane Lohitzuneko kirol-denda

- **Erref:** DON-169/023
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:52:27. **Bukatu:** 00:53:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Donibane Lohitzunera joaten ziren mendiko arropa eta materiala erostera, Donostian ez baitzen parekorik.

43. Koltxonetarekin hondartzara

- **Erref:** DON-169/024
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:53:54. **Bukatu:** 00:57:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- Aisia » Mendia eta hondartza

Laburpena:

Lonazko kontxonetak hartu eta hondartzara eramaten zituzten egunero. Hauek puztea asko kostatzen zen. Eguzkiari begira jartzen zuten hau lehor zedin, baina askotan blai eginda eramaten zuten etxera.

44. Kaia, udako irteera

- **Erref:** DON-169/025
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:57:02. **Bukatu:** 01:00:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

12-14 urterekin arratsaldez bakarrik irteten ziren kuadrilan. Pipak jaten eta kaia kontrolatzen ibiltzen ziren denak. Arrantzaleek harrapaturikoa itsasontzitik nola ateratzen zituzten ere ikusten zuten.

45. Amaren jubilatzeako arazoak

- **Erref:** DON-170/002
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 00:00:07. **Bukatu:** 00:03:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Arantzaren amak ez zuen jubilatzea lortu, Errepublikara garaian oposaketak atera eta lanean aritu bazen ere.

46. Loiola irratiaren hasiera

- **Erref:** DON-170/004
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:04:11. **Bukatu:** 00:08:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Politika eta Franco

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:

Kanpandegi kalean egiten zuten Loiola Irratiaren lanketa. Lizeoak ere bertan sartuta zeuden, eta horrela izan zuen Arantazuk honen berri. Gerardo Bujanda, Joxe Mari Etxebeste, Karmen Kristobal... izan ziren bertako partaide.

47. Umeak Loiola Irratiaren parte

- **Erref:** DON-170/005
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:08:11. **Bukatu:** 00:09:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Politika eta Franco
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Irratian emandako antzerkietako parte izaten ziren lizeoko ikasle gazteak.

48. Maria Dolores Agirreren antzerki taldea

- **Erref:** DON-170/006
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:09:00. **Bukatu:** 00:09:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Toribio Altzagak martxan jarritako antzerkiari jarraipena eman zion Maria Dolores Agirrek. Euskara irakatsi zuen Amaran, bertan egiten zituzten antzerkiko entseguak.

49. Nola sartu zinen antzerki munduan?

- **Erref:** DON-170/007
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:09:58. **Bukatu:** 00:13:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Hasiera batean estra moduan sartu zen Arantza antzerki obra batean. Harreman estua zuen Elvira Zipitriak Maria Dolores Agirrerekin, eta ikastolan antzerki asko egiten zutenez, Arantza antzerki munduan murgiltzen joan zen. San Tomas eta San Sebastian egunean arratsaldean egiten zuten obra, langileen entretenigarri gisa.

50. Antzerki emanaldietako bitxikeria zenbait I

- **Erref:** DON-170/008
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:13:12. **Bukatu:** 00:16:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

<p>Maria Dolores Agirreren antzerki taldean zebileneko kontuak. Bitxikeria mordoa gertatzen zen orduan Antzoki Zaharreko eszenatokian. Apuntadorea egoten zen. Makilatu egiten zitzuten. Arantzak aktore bat oso berandu iristen zirela gogoratzen du, eta larri-larri ibiltzen zirela gainontzekoak.</p>

51. "Yerma" antzezlan

- **Erref:** DON-170/009
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:16:01. **Bukatu:** 00:18:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

<p>Aktore bat bazen askotan mozkorturik ibiltzen zena, antzerki obran esandakoa ahaztu egiten zuena askotan. Beste batean, Garcia Lorcaren "Yerma" antzeztu zuten, Maria Dolores Agirrek itzulita.</p>

52. Maria Dolores Agirrerekin antzerki-paperak ikasiz

- **Erref:** DON-170/010
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:18:35. **Bukatu:** 00:20:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Maria Dolores Agirre Urbieta kalean bizi zen. Bertan irakasten zion antzerkia Arantzari, obrako bere papera entseatuz.

53. Maria Dolores, umoreko emakumea

- **Erref:** DON-170/011
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:20:15. **Bukatu:** 00:21:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Oso maitagarria omen zen Maria Dolores Agirre. Opari mordoa egiten zizkion Arantzari. Oso pertsona irrifartsua omen zen bera, beti barrezka zebilena.

54. Japonetik ekarritako jostailuak

- **Erref:** DON-170/013
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:21:40. **Bukatu:** 00:24:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Maria Dolores Agirreren alaba Japonen zegoenez, Japonetik ekarritako jostailuak oparitzen zizkion Arantzari, panpinak, zilarrezko kontuak...

55. Antzerki taldeko umea

- **Erref:** DON-170/014
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:24:00. **Bukatu:** 00:27:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

<p>Maria Dolores Agirreren etxera joaten zen antzerkia ikastera, eta gustura joan ere. Antzerki taldeko umea zen, gazteena, eta behin harriturik gelditu ziren denak Arantzak egindako lan onarekin. Erregearen postaria lana egin zutenean, 1961ean, tuberkulosia zuen umearena egiten zuen berak. Jarri zuten dekorazioaz eta arropez hitz egiten du.</p>

56. Antzerkiko aktore protagonistak

- **Erref:** DON-170/016
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:27:40. **Bukatu:** 00:30:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Maritxu Ezkurra, Manoli Aleman, besteak beste, izan ziren antzerki taldeko emakumeak. Maria Doloresen zenbait ikasle ere sartu ziren denborarekin.

57. Antzerki tradizionala vs. antzerki modernoa

- **Erref:** DON-170/017
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:30:24. **Bukatu:** 00:33:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Orokorrean oso antzerki tradizionala izaten zen Maria Dolores Agirreren taldekoak, euskal topiko asko zituena. Lan handia egin zuen Maria Doloresek zentsura zela eta. Donostian bertan Jarrai antzerki taldea ere bazen, beste obra mota bat oinarri zuena.

58. "Vaya niña repipi"

- **Erref:** DON-170/018
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:33:38. **Bukatu:** 00:34:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Donostian antzerkigintza garatuz joan zen, eta Maria Dolores Agirreren taldeak eta Jarrai taldeak talka egin zuten. Talka hartan, Jarraiko zuzendaria zen Beobidek, "vaya niña repipi" esan omen zuen Arantzari buruz, Amal-en papera antzeztu zuenean.

59. Jende kultuz inguraturiko antzerkigintza

- **Erref:** DON-170/020
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:36:30. **Bukatu:** 00:37:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Maria Doloresek, bere izaera maitagarria zela eta, jende mordoa erakartzen zuen antzerkira, baita antzerkia antolatzeke edozein lanetara ere. Orokorrean jende kultua izaten zen haren inguruan biltzen zena.

60. Antzerkia musutruk

- **Erref:** DON-170/021
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:37:42. **Bukatu:** 00:39:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Hasiera batean antzerki taldeak ez zuen dirurik jasotzen egindako lanagatik. Geroago Udala laguntza ematen hasi zen.

61. Gidoia kalko paperetan

- **Erref:** DON-170/023
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:40:18. **Bukatu:** 00:41:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Baliabide gutxi bazituzten ere, kalko paperetan egoten zen idatzita antzezlanaren nondik norakoa. Jarrai antzerki taldeak, ordea, antzezlan gehiago prestatzen zituen, urte osoa eskaintzen baitzioten antzerkigintzari.

62. Barriola ahizpak

- **Erref:** DON-170/024
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:41:47. **Bukatu:** 00:43:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Maritxu eta Koro Barriola ahizpak ezagunak ziren euskararen alde egin zuten lanagatik. Maritxu Barriola argitalpenak saltzen aritu zen, ezkutuan.</p>

63. Bilerak Donostiako dendetan

- **Erref:** DON-170/025
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:43:55. **Bukatu:** 00:45:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Politika eta Franco
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Gogoan ditu Arantzak Donostian zeuden kapela eta zapata denda dotoreak. Askotan, bilerak denda hauen biltegietan izaten ziren, zentsura zela eta. Orixe hil zenean etxez etxe bildu zuten dirua.

64. Emakumeek antolaturiko diru-bilketak

- **Erref:** DON-170/026
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:45:55. **Bukatu:** 00:47:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Politika eta Franco

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Elvira Zipitria gaixotu egin zen bere azken urteetan eta Maria Dolores Agirrek askotan zaintzen zuen. Batez ere emakumeak biltzen hasi ziren, Donostiako dendarien dendetan, euskararen inguruko erabakiak hartu eta diru-bilketak egiteko.</p>

65. Isilpeko ikastolak, klandestinitatean "onartuta"

- **Erref:** DON-170/027
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:47:54. **Bukatu:** 00:49:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Politika eta Franco
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Garai gogorak izan ziren ikastolentzat Arantzaren haurtzaroko urteak, eta Elvira Zipitriarekin egindako ibilaldietan norbait hurbiltzekotan, polizia izan zitekela bazekiten umek. Zipitriak, hala ere, klandestinitatearen barruan onarpen moduko bat lortu zuen "hizkuntza eskola" moduan.

66. Euskarazko Jaunartzeak

- **Erref:** DON-170/028
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:49:11. **Bukatu:** 00:51:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

Elvira Zipitriak Jaunartzerako materiala euskaratu eta prestatu egin zuen, ondoren ikastolako ikasleek Jaunartzea egin zezaten. Santa Teresan egiten zuten denek.

67. Elvira Zipitriaren izaera

- **Erref:** DON-170/029
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:51:31. **Bukatu:** 00:52:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Idea argiko emakumea zen Elvira Zipitria, eta arazoren bat zegoenean, hura konpontzeari eskaintzen zion ahalik eta denbora gehien.

68. Elvira Zipitriaren azken urteak

- **Erref:** DON-170/030
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:52:20. **Bukatu:** 00:55:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Gogorak izan ziren Zipitriaren azken urteak, eta jende askok zaindu zuen bere azken egunetan. Arantzaren ama ere hura zaintzen ibili zen.

69. Donostiako Bidasoa taberna

- **Erref:** DON-171/002
- **Iraupena:** 0:04:17. **Hasi:** 00:00:14. **Bukatu:** 00:04:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:

Jendez beterik egoten zen taberna zen Bidasoa, autobusak ondo-ondoan gelditzen baitziren. Donostiako Aste Nagusian, suak bukatutakoan, bertara joaten ziren inguruko bizilagunak, tertulian aritzera.

70. Liburutegian denbora pasa

- **Erref:** DON-171/004
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:04:56. **Bukatu:** 00:06:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:

Diputazio plazako liburutegira joaten ziren askotan, bai ikastera, eta baita lagunekin denbora pasatzera ere. Atsedenean, Bidasoa tabernara joaten ziren kafea hartzera, eta bertan euskararen inguruan jardun duen jende mordoa ezagutu zuen.

71. "Euskara hire laguna"

- **Erref:** DON-171/005
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:06:19. **Bukatu:** 00:07:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Euskarazko eskolak ere eman zituen garai batean, Patxi Altunaren "euskara

hire laguna" erabiliz. Hasiera batean lagunaren artean hasi ziren euskara eskolak ematen, gero eremua zabaldu egin zuten. Bidasoa tabernan izaten ziren eskola hauek batzuetan.

72. "La prueba de la rana"

- **Erref:** DON-171/006
- **Iraupena:** 0:04:04. **Hasi:** 00:07:33. **Bukatu:** 00:11:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuek eta sasimedikuek

Laburpena:

Usabiaren erremedioak eta Mokoroan odol-analisiak egiten zituzten. Oso gazte ezkondu zen Arantza, ikasketak bukatu gabe zituela. Senarra kanpoan zuela, haurdun zegoen jakiteko Mokoroa botikara joan zen.

73. Zezen bat Donostiako kaleetan barrena

- **Erref:** DON-171/008
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 00:12:10. **Bukatu:** 00:15:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Zezenak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Donostiako Udaltzainak bidegurutzeetan egon ohi ziren. Euskal Jai batzuetan, goizetako sokamuturra egiten ari zirela, soka puskatu eta zezena Donostian barrena ibili zen. Azkenean, hondartzan harrapatu zuten.

74. Gurelesaren kontrako manifestazioa

- **Erref:** DON-171/010
- **Iraupena:** 0:04:26. **Hasi:** 00:15:52. **Bukatu:** 00:20:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Baserritarrek joan ohi ziren Donostiara esnea saltzera. Arantzak Zumitza baserriko Maria oroitzen du, marmita eta guzti. Esne hau egosi egiten zuten, eta Arantzaren amak pastak egiten zituen. Esne hau saltzea debekatu zutenean manifestazioa antolatu zen. "Los grises" joan ziren jendea kontrolatzera.

75. Esnea ezkutuan saltzen

- **Erref:** DON-171/011
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:20:18. **Bukatu:** 00:21:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Baserriko esnea saltzea debekatu zutenean, baserritar askok eta askok ezkutuan saltzen zuten hau, barazkien artean ezkutatuta.

76. Urtebetetzeak txurrerian

- **Erref:** DON-171/013
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:21:42. **Bukatu:** 00:23:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Kafetegiak eta gozotegiak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Donostiako Alde Zaharrean bi txurreria zeuden. Urtemugak bertan ospatzen zituzten askotan, kristalezko mahaietan jarrita. Azukrez egindako edari mota bat ere edaten zuten, 'bolaua'.

77. Fabricantes Unidos

- **Erref:** DON-171/014
- **Iraupena:** 0:04:26. **Hasi:** 00:23:43. **Bukatu:** 00:28:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Donostiako abenidan Fabricantes Unidos zegoen, denda. Kristal handiko erakusleihoa zuen dendak. Denetik aurki zitekeen burdingegian, eta lapurtzeko erraza zelako fama zuen.

78. Etxeak sua hartu zuenekoa

- **Erref:** DON-171/016
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:28:20. **Bukatu:** 00:32:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

Easo liburudenda gogoratzen du Arantzak, etxe ondoan baitzegoen. Behin, Arantzaren etxeko butanoa bukatu eta bonbonak sua hartu zuen. Ondorioz, sukalde osoak sua hartu eta etxetik atera zituzten.

79. "Seren? Va!"

- **Erref:** DON-171/017
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:32:10. **Bukatu:** 00:35:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

Donostian sereno bat zen, eta honek zituen atarietako giltzak. Etxe multzoka antolatzen zen serenoaren lanak, eta Arantzaren etxeko atarian uzten zituen bere ondasunak. Makila hartuta joaten zen hau kaletik, laguntza behar zuenari bere presentzia txalo edo makila bidez adieraziz.

80. Igogailu ederra etxean

- **Erref:** DON-171/018
- **Iraupena:** 0:04:34. **Hasi:** 00:35:00. **Bukatu:** 00:39:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

Igogailu ederra zuten etxean, eserlekuak eta ispilua zituena. Ez zen ohikoa igogailua izatea, normalean egurrezko eskilara estuak izan ohi zituzten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-22

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com